

## Irungo atxilotze guneak

Irungo kokalekua ezin estrategikoa izaki, altxamendu faxistatik ihes egin ahal izan zuten pertsona askok, muga pasata, irungo atxilotze guneetan egonaldia burutu zuten, kontzentrazio esparruetara iritsi aurretik. 1936 eta 1942 urteen artean bideratu ziren errefuxiatuak atxilotze guneetara.

### Comisión de Admisión del Puente

Frankistek Irun hartu zutelarik, kontrolgune estrategikoa bihurtu zen Avenida Zubia. Bertatik pasatzen ziren pertsonak kontrolatzen zituen “**Comisión de Admisión del Puente**” delakoak. 1936ko azarotik aurrera “**Comité de Información y Residencia**” izena hartu zuen.

Batzarra, altxamenduan hasieran, errepublikarrek Guadalupen atxilotu zuten pertsonak osatzen zuten. **Santiago Fernández Urtizberea** zen burua eta berarekin zeuden **José Ángel Fernández Casadevante, Ricardo Bergareche, Manuel Eceizabarrena Fernández eta Guillermo Echenique**.

1

### Las crueldades de los fascistas en Irún

Bilbao 13. 11 mañana. Según se va reconquistando el terreno invadido por los fascistas y llegan a nuestras filas personas evadidas o rescatadas, se conocen detalles de las crueldades cometidas por los facciosos.

Los primeros días de la lucha en Irún fueron enteramente favorables para las fuerzas de la República, que con heroísmo y sacrificio sin límites produjeron serios descabros a los traidores, causándole más de 1.500 bajas, entre muertos y heridos.

Los carabineros de Vera de Bidasoa, comportándose con la ejemplaridad habitual en este Cuerpo, se pusieron desde el primer instante al lado del Gobierno legítimo.

Los carabineros dejaron a sus familiares en Vera de Bidasoa. Los rebeldes, para quebrantar la moral de estos heroicos carabineros, se apoderaron de sus mujeres y de sus hijos y los llevaron delante de sus columnas para que fueran los primeros en caer. El sacrificio de los carabineros fué inaudito, pues a pesar de tener enfrente a sus seres más queridos no se cobibieron y pelearon bravamente.

Un teniente de la Guardia civil que se decía leal, traicionó cobardemente a las fuerzas a sus órdenes, y más tarde, el comandante del mismo Instituto, Margarida, también huyó de las filas leales.

Entre los horrores cometidos con los indefensos seres familiares de los carabineros de Vera de Bidasoa figura el de haberlos pelado al cero y pasearlos sarcásticamente entre las risotadas de sus verdugos por las calles de la población.

Tan pronto como los traidores fascistas penetraron en la heroica villa fronteriza establecieron un Tribunal de las mismas características que los de la Inquisición, que comenzó a funcionar con análogos procedimientos. Es alma de este Tribunal un sujeto llamado Santiago Fernández, persona complicada en varios asuntos de evasión de capitales. El arquitecto José Ángel F. Casadevante es también factótum de este trágico Tribunal; Ricardo Bergareche, agente de Aduanas; Manuel Eceizabarrena y un tal Echenique son los aláteres inquisitoriales que martirizan y fusilan a los leales irundarras.

Toda esta caterva de desalmados son sujetos de los llamados en otros tiempos “de representación social”.

<sup>1</sup> 1936ko urriaren 14ko ABC egunkaria

Irunera itzuli ahal izateko, hainbat tramite bete behar ziren. Besteak beste, Kotsulatuaren baimen bat edota **irunen bizi zen jendearen abala, erregimen berrian integratzeko bermetzat**. Horren adibide garbi bat aurki dezakegu Silvia Loza Serrano, María Ruiz Torrado eta Mertxe Tranche Iparragirrerren **Historia de las Mujeres de Irun 1931-1992** liburuan:


*«...y cuando ya dimos con él, estaba en Santoña, mi padre estaba en Santoña. Cuando ya nos pudimos comunicar, que no sé cómo, no os puedo decir, ya se vino aquí. Entonces, para sacarle de esa zona, había que tener avales, si no, no le dejaban venir; estaban presos y yo me acuerdo que don Ramón Larrañaga era el médico de los carabineros, médico de cuando yo nací y de siempre y mi madre fue a pedirle a ver si por favor le daría un aval para que viniese mi padre... Dice que le miró, se dio la media vuelta y se marchó y mi madre se quedó cortada y se da la vuelta otra vez y le dice “¿Y ya tienes el otro aval?” “Pues no” “Pues no te preocupes que ya te lo buscaré yo...”» (Angelita, 84 años).<sup>2</sup>*

1936ko azarotik aurrera, “**Comité de Información y Residencia**” izena hartuta, Manuel Eceizabarrenak hartu zuen ardura. “*Atzerri edo bestelako edozein puntutik irunera sartzea eskatzen zuten bizilagunen portaera politikoaz informatzea*” helburutzat zuen batzarrak.<sup>3</sup>

---

<sup>2</sup> LOZA SERRANO SILVIA, RUIZ TORRADO MARÍA eta TRANCHE IPARRAGIRRE MERTXE: Historia de las Mujeres de Irun 1931-1992. 57. Orrialdea.

<sup>3</sup> SECCION DE RESIDENCIA E INFORMACION arauak.



## Behobia




Avenida zubiaz gain, hamarnaka irundar bueltatu ziren Behobiako zubitik. Bertan ere kontrol puntua zuen “Comité de Información y Residencia” batzordeak. Juncal Violet lekukoaren esanetan, bi atxilotze gune zeuden Behobia auzoan: Arocena ardoen pabilioia eta Kaiola dantzaleku eta jatetxea. Frantziatik itzulitako bizilagun irundarrak bertan egoten ziren abalaren zain. Emakumeak eta haurrak itzuli ziren bereziki gerraostean. Zenbait

gizonezko urteak pasa zituzten erbestean.

Irundarrak ez zirenek, muga pasata, igarobidea kendu eta “pasavante” edo “Salvoconducto” bat jasotzen zuten. Exiliatuak dokumentu horrekin iristen ziren euren jatorrira eta tokian tokiko erresidentzia batzarrak pertsona hauek zigortzen zituen.

Irun eta Hondarribian, Julian Troncoso Komandante militarren agindupeko Komandantzia militarrek ezarri zituen itzulera arauak:



Troncoso eskualdeko agintari militar altuena izan zen, 1937. urtea iritsi arte. Irungo Komandantzia Militarreko nagusia, Mugetako Nagusi Militarra, Mugako Epaille Militarra eta Iparraldeko Mugako Informazio Zerbitzuaren (SIFNE) burua zen.





## Stadium Gal



Irunera iristen ziren militar errepublikarrak Real Union futbol taldearen Stadium Gal zelaian batzen ziren, Hilaturako atxilotze gunera joan aurretik. Joan Costa Errepublikako militarren testigantza jaso dugu:

*“Nos condujeron a un campo de fútbol el famoso Estadio Gal de la Real Unión de Irún. Allí delante de la tribuna habían levantado otra tribuna, y desde allí un Jefe Jefazo o Jefecillo, con potentes altavoces, empezó a dar órdenes”.*(Joan Costa Cusiné)<sup>4</sup>

Josep Torrens soldadu katalana ere Stadium Gal-etik pasa zen:

*“Cruzamos la frontera y en Irún nos metieron en el campo de fútbol y nos dijeron: Toda persona que lleve cualquier objeto de valor que no pueda certificar que es suyo, que lo entregue. Si no, que se atenga a las consecuencias. Así que allí dejamos todos los relojes, anillos y todo lo que teníamos.”*(Josep Torrens)

## Pabellón ferroviario velocidad pequeña

Stadium Gal-etik irtenda, Errepublikaren aldeko preso militarrek espainiako kontzentrazio guneetara bidaltzen zituzten. Norteko ferrokarrila baliatzen zen eta honen abiapuntua **“Pabellón ferroviario velocidad pequeña”** zen. Pabilioi hau Aduanako eraikinaren atzekaldean kokatua dago.



<sup>4</sup> Memòries del Martinenc Joan Costa Cusiné durant la guerra civil i la postguerra (1936-1945).

Jose Mari Etxaburuk, bere *Neure lau urteko ibillerak* liburuan, “**Pabellón ferroviario velocidad pequeña**”-n bizitakoa azaltzen du:

*“Afaldu ondoren, geltoki bertako **“Pequeña Velocidad”**-eko biltegiara eraman gintuen hiru lehengusuok. (...) Jende asko zegoen biltegian. Jakina! ez zegoen non etzan, eta batzuetan zutik eta beste batzuetan bultoren baten gainean jarrita igaro genuen nola-hala gaua. Nahikoa luzea izan zen. Noizean behin, han agertzen ziren norbaiti edo batzuei deituaz. (...) Guri ere, deitu ziguten eta atera ginen.*

*Italiar gudari ofizial bat zen gurekin egon nahi zuena, Frantziako berriak jakin nahi zituen. Eguerdia aldera bigarren deia eduki genuen. Ordukoa, handik kanpora ateratzeko zen. Hamar-hamabi lagun txapel-oker (sic) biren ardurapean. **Norteko trenean sartu gintuen Cardeñara eramateko (...)**”*



## Irungo Kartzela



Irungo Lapize auzoan, kartzela kokatu zuten XX. mendeko 20. eta 30. Hamarkadetan. 600 lagun ingururentzako edukiera zuen eta, egun, Pio Baroja eta Bidasoa institutuak kokatuak dauden lurzoruan zegoen.

1938ko apirilaren 22an, laugarren zeldan, Rodolf Bach presoak buruaz beste egin zuen<sup>5</sup>. Bach Loeseko (Hungaria) itsasgizona zen eta Bilboko Iturriride kaleko 55. eraikinean bizi zen. Bi egun irauz zituen kartzelan. Gerora jaso ditugun biktimen zerrenden arabera, fusilatu egin zuten.

Juan Gallano politikari bizkaitarra ere irungo kartzeletik pasa zen, Beran atxilotua izan ostean. Honela deskribatzen du kartzela Miguel Rotaeche Gallanok:

*“Que la cárcel era una “habilitada”, ocupaba unos antiguos cuarteles (siglo XIX) y que ahora alberga a unos 600 prisioneros. Los medios con los que cuenta este centro son muy precarios. No hay más que ver la hoja de registro de entrada de Juan Gallano, una simple cuartilla escrita a mano.”*<sup>6</sup>

## Pabellón Hilaturas Ferroviarias

Irungo atxilotze gune handienetako bat Hilaturas Ferroviarias izeneko pabilioia izan zen. “Hilatura” izenez ezagunagoa da eta 1923ko irailaren bostean ireki zuten. Anaka auzoan kokatua dagoen beilatokia dagoen lekuan zegoen. Trenentzako eguzki-ohialak egiten zituzten bertan.



Irungo atxilotze guneak jendea banatu, kontrolatu, sailkatu eta kontzentrazio esparruetara banatzeko sortu ziren. 1937ko irailaren 14an agidu zen atxilotze guneak sortzea<sup>7</sup>

<sup>5</sup> AIMNF. Causas plaza San Sebastián. Caja 2136

<sup>6</sup> ROTAECHE GALLANO MIGUEL Bilbao agerkaria; 2015eko otsaila; 28. orrialdea

<sup>7</sup> AGMAV, C 2324, L 46 BIS, Cp 1/13

Irungo lehen datua 1939koa da eta 224 atxilotu zituen Hilaturak. 1940 eta 1942 urteen arteko datuak egon arren, ez dago izen zerrendarik. Atxilotze guneko langile falta argudiatu zen, zerrendak egin beharrean atxilotuak zenbatzeko.

Ascensión Badiolak Irungo atxilotze guneko gatibuen kontaketa burutu du, *La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra* doktorego tesian:

Urtea	Kanpotarrak	Nazionalak	Guztira
1939			
1940	180	652	832
1941	284	506	790
1942	119	167	286
GUZTIRA	583	1325	1908

Frankismoan “Hilatura” atxilotze esparruan emakumeak eta haurrak batzen ziren bereziki. Horietako bat da Karmentu:

*“Se veía mujeres tiradas en el suelo o de pie, y niños/as corriendo y gritando, yo tuve suerte y pronto me vino a buscar, Leandro Recondo, avalando a mi madre y a mis hermanos”  
(Karmentu, 91 años).*

Euskal Herriko atxilotze eta kontzentrazio esparruak 1939an itxi ziren. Irungoa aldiz 1942. urtea iritsi arte iraun zuen.